

# Gogoan hartu damutu baino lehen

Seguru egoteko,   
fidatu zure artekariarekin.

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina  
Nº 31 / Iraila 2015

## Buruarekin pentsatu, oinekin ibiltzeko.



*“Nire lagun aberats bat asko arduratzen da bere egungo eta etorkizuneko diruaz. Lasai bizi da, eta ongi babestuta dago. Datorren urtean erretiratuko da, eta gehieneko pentsioa kobratuko du. Soldata handiagoa edukitzen ohituta dago. Beraz, enpresa saltzea eta egungo bizi-mailari eusteko euro kopuru handi samar bat hartzea erabaki du. Hori zortea!*

*Ni lan xume batetik bizi naiz, etxe xume batean, estutasunik gabe baina neurritz, euro bakoitzari begiratuta. Aurrezki gutxi batzuk ditut bankuan, badaezpada ere, eta nire laguna erretiratzeak zer pentsatua eman dit. Nire txanda heltzen denean... edukiko ote dut pentsiorik, nahikoa izango ote da? Kazetariak argitaratu dutenez, alderantzikatu egin da jaiotza-piramidea, eta gaur egun ez dago haur nahikorik ongizate estatua bermatzeko.*

*Ez dut asko irabazten. Baina 65 urte bete ondoren ere orain beste kobratzeko beharra dut. Zer egingo dut?”*

### Noiz eta nola bermatu etorkizuna?

Oinez zoazenean, lurrera begiratzen

duzu, baita aurrera ere. Hartu aurrea zure urratsei. Horregatik aurreztu behar duzu etorkizunerako. Orain arte, zure kabuz atera zara aurrera. Orain, lan egiteari uzten diozunerako aseguratu nahi dituzu zure diru-sarrerak. Zuregatik, zure seme-alabengatik, ez baitira independente izango, ez baituzu hipoteka ordainduta edukiko, autoa aldatu beharko duzulako eta, zer demontre! Zure estatusari eutsi nahi diozulako.

Errepasatu zure ekintzak: etxea aseguratu duzu, autoa ere bai, baita osasuna ere segur aski, eta telefono mugikorra... Eta ez dituzu zure diru-sarrerak aseguraturako?

### Pentsatu bi aldiz eta utziguzu aholku ematen, hainbat formula daude:

- **BIZIA:** gaztea zarenean eta konpromiso finantzarioak (hipotekak, maileguak, zure kargura duden seme-alabak) dituzunean gomendatzen dugu.
- **AURREZKIA:** urteak betetzen eta etorkizuneko zure diru-sarreretan pentsatzen zoazen heinean gomendatzen dugu.

### “Gezurria, hankamotz... Aseguruaren inguruko iruzurra”

Esta es la historia de un empresario Aseguru-etxeari iruzur egiten saiatu zen Espainiako enpresari baten istorioa da hau. Sute bat simulatu zuen bere nabe industrial batean. Ekintzak arrakasta eduki zezan eta balizko “txibatzoak” saihesteko, sua berak piztea erabaki zuen. Ez zen piromano aditua, ordea, eta kanpotik barrurantz isuri zuen erregaia, eta ez alderantziz. Konturatzerako, berandu zen jada: bere tranpan jauzi zen.


Auto-aseguruetan izaten dira iruzur gehien, 10 iruzur-saialditatik 7, ICEAren datuen arabera.

- *“Nire lagunak dio izkinako tailerrean moldaketa bat egiten dizutela eta aseguruari kobratzen diotela konponketa”. – Tailerraren marketing-estrategiak ongi funtzionatzen du, eta pixanaka-pixanaka, bezero dezente lortzen dituzte. Ahoz ahoko hori aseguru-etxeari iristen zaion arte. Orduan, akabo negozioa, eta alde guztietara iristen hasten dira arazoak.*

Krisia dela-eta, negozio berri bat sortu da: aseguruari iruzur egiteko trama antolatua. %500 egin dute gora azken urtean, eta 7 kasutik 45 kasura pasatu da.

UNESPAren arabera, 2014. urtean 156.000 iruzur-saialdi antzeman ziren, eta 426 milioi euroko galera saihestu, kalte-ordain faltsuengatik. Hala ere, halako ekintzak ez dira orokorrak, eta espainiarrok badakigu zer-nolako ondorioak dakartzaten.

Aseguru-etxeei ez ezik, gainerako herritarrei ere eragiten die iruzurrak, gainera; izan ere, kalte-ordain faltsua kobratzeko iruzur faltsua egiteak areagotu egiten du siniestrabilitate orokorra, eta konpentsatzeko, aseguru-etxeek igo egiten dituzte primak, oro har. Irakaspena: normalki, “errua duenak ordaindu egiten du”.



## Ukiezinak: Mendekotasunaren errealitateak fikzioa gainditzen du



Aljeriar bat zitzu bizian zihon Maserati batean, Parisko kaleetan barrena. Gendarmeen hainbat patruila atzetik joan, eta gelditzea lortu zuten azkenean. Ez zioten zigorrik jarri, ordea. Lasaitzeko, erretzen hasi zen aljeriarra, bere lagun tetraplegikoarekin.

Philippe Pozzo di Borgo aurki bati lotuta dago 1993. urtetik, parapente-istripu baten ondorioz. Champagne Pommery familia-negozioa zuzentzen zuen. Aristokrata da, alargun geratu zen, eta aurrekari penalak zituen etorkin baten (Abdel Sellou) zerbitzuak kontratatu zituen, bera zaindu zezan.

Bi "ukiezin"en historiak batu ziren, eta adiskidetasun estua sortu zen bien artean.

Bata jauregi batean bizi zen, erabat deprimituta, istripuaren eta emaztearen heriotzaren ondoren. Bestea, marjinituta, pobreen eta gaizkileen antzera. Euren bizitza berregin dute biek: aberatsa Marokon bizi da, pozik, berriz ezkontuta eta bi seme-alabarekin; eta pobrea, oilasko-banketaren enpresari egin da Aljerian.

### Txanponaren beste aldea

"Ukiezinak" pelikula frantsesaren titulua da, benetako gertaerak ditu oinarri, eta mundu osoko milioika ikusle hunkitu zituen 2011. urtean. Badaude historia gehiago, ordea...

Jomian Leonelek (13 urte) "mendekotasun handia" eta garuneko

paralisia zituen, eta Espainian bizi zen. Ezin zuen komunikatu eta anemia zuen beti. Bere amari 387 euroko laguntza eman zioten hilean. Laguntza hori kobratzeko, "fakturak aurkeztu behar zituen hilabete bakoitzeko 10. egunean, hilaren 20an laguntza nominan sartzeko". Dirua atzerapenarekin heltzen zen, ordea, eta emakumeak 500 euro gastatzen zituen semearekin. Jomiani abenduan (2013) eman baimendu zioten laguntza, eta hurrengo urtean hil zen (2014), martxoan.

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Gerenteen Estatuko Elkartearen arabera, 835 milioi murriztu dira mendekoentzako laguntzak (2013), prestazio ekonomikoak %15 murriztu dira (2012), eta 145.000 zaintzaile geratu dira Gizarte Segurantzatik kanpo.

### "Zuk irakatsi niri irakurtzen, eta nik bizitzen irakatsiko dizut"

Ukiezinak pelikulako zaintzailearen esaldi bat da. Mendekotasun egoeran sartzeko bidezko modua berriz planteatzea dakar. Bizi-kalitateak hobera egin du gure gizarteak, eta hori dela-eta, aseguru-etxeek **Mendekotasun aseguruak diseinatu dituzte kasu horietarako. Diru-kopuru bat bermatzen dute, aseguratua Mendekotasun egoeran egonez gero; alegia, ezin denean bere kabuz moldatu.**

Ikerketa



### Gidabaimenik gabe eta... diru-sarrerarik gabe

Imajinatzen duzu hegaliak gabeko arrano bat? Ezingo luke ehizarik egin eta goseak hilko litzateke. Eta eskuetan lesio bat duen zirujau bat? Automatikoki utziko loke operatzeari. Pentsa ezazu gidatu ezin dezakeen gidari profesional batean. Autonomia bada, diru-sarrerak galduko ditu. Besteren kontura lan eginez gero, gidabaimena kentzeak kalera botatzea ekar dezake.

Gutako batzuk ez gara ez taxilari, ez kamioilari, ez banatzaile... Baina maiz erabiltzen dugu autoa, eta arau-hauste OSO LARRI batek egoera ekonomiko larrian jarriko gintuzke. Aseguruaren Memoria Sozialaren arabera (UNESPA 2014), scooterretarako (%49,9), kamioietarako (%43) eta furgonetetarako (%34) kontratatzen dira, batez ere, gidabaimenaren galtzea estaltzeko aseguruak.

### Kausak eta ondorioak

Bi arrazoiengatik gera zaitezke gidabaimenik gabe:

- **Puntu guztiak galdu izanagatik.** Arau-hauste arinak pilatzen joan izana da adibide bat (mugikorretik hitz egiteagatik, uhala jarrita ez edukitzeagatik...).
- **Arau-hauste oso larri batengatik.** Adibidez, 191 km/h-ra baino gehiagora gidatzeagatik gehienez ere 120 km/h-ra joateko diren errepideetan, edo alkoholtasa handiarekin (>0,60 mg/l arnastutako airean edo 1,2 g/l odolean).

Azken 9 urte hauetan 100.000 gidariri baino gehiagori kendu diete gidabaimena. Horietatik 80.000k errehabilitazio ikastaroak egin dituzte, ordaindu beharrekoak. Gastua eta gidatu ezinak dakarren diru-sarrera galera arintzeko sortu zen gidabaimena kentzen dizutenerako aseguruak.

Kontratatu aurretik, bi galdera egin behar dizkiogu gure buruari: **zenbat diru jasoko duzu, egunean, gidatu ezinak eragindako diru-sarreraren galera konpontzeko? Eta zenbat denboran?** Norberaren soldataren arabera da kalte-ordainaren muga, noski.

**Zure artekaria naizen aldetik, autoa egunero erabiliz gero estaldura hori zalantzarik gabe kontratatzea aholkatzen dizut.**